

SAILBURUA
LA CONSEJERA

AGINDUA, 2020KO URRIAREN 26KOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA; HONEN BIDEZ BERMATZEN DA OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ETA OSASUN-GARRAIO, GARBIKETA ETA SUKALDARITZAREN EREMUETAKO OSAKIDETZAKO ENPRESA AZPI-KONTRATISTETAKO LANGILEEK GIZARTEARI EMATEN DIZKIOTEN FUNTSEZKO ZERBITZUEI EUTSIKO ZAIELA, ARABAN URRIAREN 29RAKO, GIPUZKOAN AZAROAREN 5ERAKO ETA BIZKAIAN AZAROAREN 12RAKO DEITUTAKO GREBAN.

SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO, UGT, SAE eta UTESE sindikatuen ordezkariak grebarako deialdia egin dute zuzenbide pribatuko erakunde publikoa den eta Osasun Sailari atxikita dagoen OSAKIDETZAn eta haren mendeko osasun-organoetan. Honako egun, lurralde eta orduetarako deituta dago greba:

- 2020ko urriaren 28ko 22:00etatik 2020ko urriaren 29ko 22:00etara, Arabako Lurralde Historikoko lantoki guztietan.
- 2020ko azaroaren 4ko 22:00etatik 2020ko azaroaren 5eko 22:00etara, Gipuzkoako Lurralde Historikoko lantoki guztietan.
- 2020ko azaroaren 11ko 22:00etatik 2020ko azaroaren 12ko 22:00etara, Bizkaiko Lurralde Historikoko lantoki guztietan.

Greba-deialdiaren helburuak honako hauek dira: “OSAKIDETZako langileen kolektiboak jasaten duen lan-prekaritatea salatzea”; eta “kolektiboaren lan-baldintzak defendatzea eta egungo baldintzak errotik aldatzera behartzera, Mahai Sektorialeko negoziazio egokiaren bidez. Hobekuntza horren barruan sartzen dira: osasun publikorako aurrekontu-partida areagotzea; giza baliabide gehiago jartzea; aldi baterako langileak finkatzea; azken urteetan aplikatutako murrizketa guztiak leheneratzea; zerbitzu privatizatuak publiko egitea eta plantillaren segurtasuna eta osasuna bermatzeko neurriak hartzea.”

Bestalde, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuetakordezkariak greba deitu dute osasun-garraioaren eremuko OSAKIDETZAKO enpresa azpi-kontratistetan, Araban urriaren 29rako, Gipuzkoan azaroaren 5erako eta Bizkaian azaroaren 12rako.

Era berean, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuetakordezkariak greba deitu dute sukaldaritzaren eremuko OSAKIDETZAKO enpresa azpi-kontratistetan, Araban urriaren 29rako, Gipuzkoan azaroaren 5erako eta Bizkaian azaroaren 12rako.

Eta, azkenik, ELA, LAB, CCOO, ESK eta UGT sindikatuetakordezkariak greba deitu dute osasun-garraioaren/garbiketaren eremuko OSAKIDETZAKO enpresa azpi-



kontratistetan, Araban urriaren 29rako, Gipuzkoan azaroaren 5erako eta Bizkaian azaroaren 12rako.

Azken hiru deialdi hauetan, grebaren helburua berdina da guztietan; honako hau, hain zuzen ere: *“langileen falta, hutsuneen estaldurarik eza eta aldi baterako ezintasunen edo oporren ordezkapenik eza, segurtasun-neurririk eza eta kolektibo batzuen soldata-baldintza prekarioak salatzea”*, eta *“OSAKIDETZari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzea gaiaren gaineko erantzukizuna har dezatela, zerbitzu hauek pribatizatzeke erabakietan atzera egin dezatela eta zerbitzuon ardura zuzena har dezatela”*.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Horrela, beraz, Konstituzioak greba-eskubideari ematen dion babesaz zerrendatzen eta babesten dituen eskubiderik garrantzitsuenei (15. eta 43. artikuluan aipatzen dituen bizitzarako, osotasun fisikorako eta osasunerako eskubideei, adibidez) ematen dienaren berdina da. Eskubide horiek guztiek, greba-eskubidearekin batera, Konstituzioaren babesik handiena jasotzen dute.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Edonola ere, aurreko premisa ondorioztatu ondoren, nabaria da oinarrizko eskubideak murriztuko dituen neurri orok proportzionaltasun-printzipioa zorrotz bete behar duela, eta, hori lortzeko, hiru betekizun edo baldintza bete beharko ditu neurriak: hori aplikatuz gero proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo “egokitasun-judizioa”; kasua aztertu ondoren helburu hori eraginkortasun berdinarekin lortzeko neurri apalagorik ez dagoela ondorioztatu izana, edo “premia-judizioa”; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, “proportzionaltasun-judizioa, zehazki ulertuta”. Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa eta ezinbestekoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzeko. Hori guztia dela-eta, ziurtatze horrek berme gisa jardun behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta, betiere ulertuta grebalarrien eskubidea mugatu beharko dela —amore eman,

Konstituzio Auzitegiaren hitzetan—, baldin eta haien interesak grebaren bidez babesteak komunitateari edo funtsezko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien erreibindikazioek edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, aurrekoa kontuan hartuta eta greba-deialdi honen aurrean, grebaren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Grebaren egunei eta lurraldeei dagokienez, egun osoa deitu da Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako bakoitzerako data desberdinetan; zehazki: 2020ko urriaren 29an Araban, 2020ko azaroaren 5ean Gipuzkoan eta 2020ko azaroaren 12an Bizkaian. Hala ere, OSAKIDETZAREN eremuan, aurreko eguneko 22:00etan hasiko da greba, eta deialdiaren eguneko 22:00etan amaituko da.

Jarduera-eremuan, nahiz eta hainbat deialdi aurkeztu diren, horiek, de facto, greba orokorraren deialdia egiten dute EAEko osasun-sistema publiko osoan, grebarako deituta baitaude bai OSAKIDETZako lantokietan zerbitzuak ematen dituzten langileak bai eta sukaldaritza, garbiketa eta anbulantzien eremuetan OSAKIDETZAREN enpresa azpi-kontratatetan zerbitzuak ematen dituzten langile guztiak ere. Hori dela eta, gutxieneko zerbitzuen agindu bakar bat ezartzea erabaki da, aipatu deialdiak batzeko agindu horretan.

OSAKIDETZAN 42.668koa da grebarako deituta dauden langileen kopurua. Horiez gain, kontuan hartu behar dira, halaber, garbiketa, sukaldaritza eta anbulantzien eremuetako enpresa azpi-kontratatetan lan egiten duten langileak.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria osoak jasan ditzake greba-deialdien eraginak. Osasun Txartel Indibidualen (OTI) kopurua, une honetan, 2.400.000tik gorakoa da OSAKIDETZAK berak emandako datuen arabera.

Osasuna babestea oinarritzko eskubideetako bat da zuzenbide-estatu guztietan. Egun, herritarrek gutxieneko prestazio sanitarioak eskatzeko duten eskubidetzat ulertzen da eskubide hori, aintzat hartuta giza duintasuna eta estatu bakoitzaren gizartearen eta ekonomiaren garapen-maila. Hala, Giza Eskubideen Adierazpenak (NBE, 1948) 25.1. artikuluan dioenez, «persona orok du osasuna eta ongizatea edukitzeko eskubidea, eta batez ere, mediku sorospena eta gizarte-zerbitzuak edukitzeko»; ildo berekoak dira Europako Kontseiluaren Europako Gutun Sozialaren 11. artikulua (Turin, 1961) eta Ekonomia-, Gizarte- eta Kultura-eskubideen Nazioarteko Itunaren 12. artikulua (NBE, 1966).

Hortaz, greba-eskubidearen eta Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotako beste zenbait eskubideren arteko gatazkan (bizitzeko eskubidea, osotasun fisiko eta moralerako eskubidea eta osasuna babestekoa), ezinbesteko baldintza da azken horiek bermatu beharra.

Bizitzeko eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea nahiz osasuna babesteko eskubidea Konstituzioan jasota daude, eta garrantzi berezia dute gaur egun. Ezin da ahaztu deitutako greba COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren barruan kokatzen dela, aintzat izanda nolako munta eta eragina izaten ari den Euskal Autonomia Erkidegoan eta zer gomendio eman eta neurri hartu dituzten osasuneko nahiz gobernuko agintariek. Beraz, kontuan hartu behar da 2020ko abuztuaren 19ko Agindua, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez laugarren aldiz aldatzen baita agindu honen eranskina: Agindua, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero. Agindu hori 2020ko uztailaren 28ko eta abuztuaren 7ko aginduen bidez aldatu zen. Agindu horrek, 4.2. puntuan (Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetan segurtasuna bermatzeko antolamendu-neurriak), eremu honetako betebeharrak zehatz batzuk ezartzen ditu, eta osasun-zerbitzuek ezinbestean bete behar dituzte, beren titulartasuna edozein dela ere. Hala, antolamendu, prebentzio eta higienearen arloko neurriak hartu behar dituzte langileei, erabiltzaileei eta edozein arrazoi dela eta haiekin harreman fisikoa duten bestelako pertsonari begira, eta, bereziki, eta gutxienezko neurri modura, honako hauek zaindu behar dituzte: pertsonen arteko segurtasun-distantzia, erabilera publikoko leku itxietan maskaren erabilera, edukiera, esku- eta arnasketa-higienea, bisiten antolaketa, lekuen eta salen zatikatzea, ibilbideen diseinua, garbiketa eta desinfekzio protokoloak, nahiz agintari eskudunek ezartzen duten beste edozein neurri.

Osasun-zerbitzuek pertsonen osasuna eta bizia zaindu behar dute. Horren ondorioz, eta greba-deialdiari dagokionez, ez da argudiorik behar edo argudio gutxi behar da azaltzeko larrialdiko zerbitzuak bete-betean mantendu behar direla; izan ere, zerbitzu horietan berehala esku hartu ezean, gerta daiteke norbaiten bizia arrisku larrian egotea.

Orobat, "ospitaleratutako pazienteak behar bezala artatu ahal izateko", ospitaleratutako paziente bakoitzari behar bezala eman behar zaizkio botikak, higie-egoera egokia bermatu behar zaio, eta jaten eman behar zaio, otorduak errespetatuz; esan nahi baita, beharrezko asistentzia eman behar zaio, bere osotasun fisiko eta morala honda ez dadin.

Zikinkeria kentzea da —nahiz eta zeregin sinplea eman, edo, hain zuzen ere horregatik— arrisku biologikoa prebenitzeko neurririk garrantzitsuenetako bat (agente biologiko askoren elikagai-iturri baita zikinkeria).

Neurri hori oinarritzakoa da betidanik, eta, une honetan, SARS-CoV-2 deritzon koronabirus berriaren ondorioz pandemia-egoera bati aurre egiten ari garela kontuan hartuta, eta birusa transmititzeko metodoak kontaktua eta tantak direla gogoan izanda, funtsezkoa da lokalak eta gainazalak garbitzeko metodoak indartzea.



Osasun-arloan, funtsezko jarduera hori orain ezinbestekoa da une oro, programatuta dauden edo puntualki egiten diren garbiketa-eragiketen bidez bermatzeko agente biologikoak ez direla aktibatzen, eta, hala, agenteok ez direla hedatzen.

Amaitzeko, kontuan hartu behar da, era berean, isuriak ezabatu eta garbitu egin behar direla, hondakin biologikoak batu eta abar. Azken katebegien gaineko jarduera horiek, izan ere, bereziki garrantzitsuak dira birusa hedatu ez dadin.

Argi dago zeregin horiek guztiak egiten dituzten langileek ez luketela arrisku gehigarririk jasan behar halako lanak egitean. Ondorioz, beren burua babesteko ekipoak eduki beharko dituzte, horretarako apropos esleituak.

Hori guztia dela kausa, eta ospitale-zentroen eremu honetan, kontuan hartuta COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera, gorantz egiten ari baita une honetan Euskal Autonomia Erkidegoko pandemia-datuei erreparatuta, beharrezkoa da aurreko deialdietan emandako Aginduetan ezarri ziren gutxieneko zerbitzuak aldatzea. Horrenbestez, zerbitzu horiek apur bat gehiago izan beharko dira, eta, beraz, jaiegun bateko ohiko langileen partez, larunbat bateko langile ohikoak izango dira lanean aritu beharko dutenak. Izan ere, jaiegunetako baliabideak baino gehiago eskaini behar dira, alde batetik, pazienteei COVID-19ak eragindako pandemiaren eta horren ondoriozko osasun publikoko larrialdiaren egungo egoeraren arabera arreta egokia emateko, eta, bestetik, koronabirusa diagnostikatzeko probak egiteko estaldura egokia bermatzeko.

Gainera, osasun-ospitaleen eremu horretan bertan, beharrezkoa da garbiketa-zerbitzuarekin lotutako gutxieneko zerbitzuak areagotzea, COVID-19aren aurrean ezarritako jarduera-protokoloak jasotzen dituzten neurriak eta zehaztapenak betetzeko. Beraz, beharrezkoa da zeregin horiek egiteko ohiko langileen % 100 egotea.

Osasun-arloko lehen mailako arretari dagokionez, arazorik gabe hartzen da oinarrizko zerbitzutzat, ospitalez kanpoko larrialdiei estaldura ematen dien heinean batez ere. Jarduera-sektore honetan gutxieneko zerbitzuak ezartzeari dagokionez, esan behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak emandako epai batzuen ondotik (2012ko urriaren 3koa, deuseztat jo zituena 2012ko martxoaren 29an 24 orduko greba orokorra egiteko 2012ko martxoaren 23ko Aginduaren bidez ezarri ziren lehen mailako arretarako gutxieneko zerbitzuak; eta 2013ko martxoaren 5koa, deuseztat jo zituena 2012ko azaroaren 14an eta 2013ko maiatzaren 30ean 24 orduko greba orokorrak egiteko 2012ko irailaren 19ko Aginduaren bidez ezarri ziren lehen mailako arretarako gutxieneko zerbitzuak; eta 2016ko ekainaren 14ko greba-deialdia, OSAKIDETZAko langileentzat egina, txanda guztietarako bi orduko tarteetan –ez dago jasota haien aurka egin zenik, ez administrazio-bidetik, ez auzibidetik–), gobernu-agintariek erabaki zuten larunbatetako lanaldiari dagokiona –eta larunbatetako ohiko ordutegia– ezarriko zutela lehen mailako arretarako gutxieneko zerbitzu gisa, greba-egunerako aurreikusita zegoen langile-kopuruarekin; horrenbestez, eutsi egin zaie zerbitzu horiei. Zerbitzu berberak ezarri ziren 2018ko martxoaren 8ko greban. Azken horretan, hala ere, nahiz eta pertsonaren oinarrizko eskubideak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO

jurisdikzio-mailan babesteko prozedura bereziaren bidez errekurtsoa jarri zen, Salaren ustez, interpretazio egokia egin ostean, zuzenbidea betetzen zen. Ondorioz, hurrengo deialdietan –2019ko martxoaren 8an eta 2020ko urtarrilaren 30ean– idazkuntza egokiagoa egiteko ahalegina egin zen. Azken idazkuntza hori baketsuagoa izan zen, eta orain ere halaxe jaso da.

Larrialdi-zerbitzuei eta etengabeko arreta-guneei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salaren 2012ko urriaren 3ko Epaiak ezetsi zuen errekurtsogileak larrialdi-zerbitzuetarako eta etengabeko arreta-guneetarako ezarritako gutxieneko zerbitzuen inguruan zuen asmoa; hau da, zerbitzu horiek gehiegizkotzat jotzea (% 100eko zerbitzuak ezarri ziren), arrazoi hau aipatuta: “larrialdi-zerbitzuen izaerak berak eta etengabeko arreta-guneen helburuak justifikatu egiten dute, aztergai dugun eremuan (osasunaren eremuan) eta osotasun fisikoa eta bizitzeko eskubidea ahaztu gabe, errekurtsoa jaso duen aginduan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezartzea”; horrenbestez, eutsi egin zaie zerbitzu horiei.

Osasun-sektore horretan bertan, kontuan hartu behar da 2011ko uztailean funtsezko erreforma bat egin zela erabiltzaileen arretan, Call Center izeneko sistema sartzean. Sistema horrek, osasun-arreta bere horretan ematen ez badu ere, zerbitzu hori benetan ematea ahalbidetzen du, erabiltzaileak arreta horrekin duen lehen harremana baita; zerbitzu hori bereziki nabarmena da osasun-aholkuari dagokionez. Izan ere, telefono-zerbitzua da, eta lehen mailako arretako erizaintzako langileek ematen dute. Bertan, erabiltzaileen premiak balioesten dituzte eta, haien egoeraren arabera, dagokion zerbitzura bideratu. Zehazki, larrialdi-zerbitzura (bizilekura anbulantzia bat bidalita) edo etengabeko arreta-gunera (bizilekurako abisua zuzenean kudeatuta) bidera daitezke. Garbi dago, beraz, Call Center izeneko osasun-larrialdietara bidera daitezkeen deien iragazkia dela, osasun-aholkuan gerta litekeen kolapsoa saihesten duela, eta osasun-lehentasuna duten deiak eta dei arruntak bereizten dituela. Horrez gain, beste zerbitzu batzuk egiten ditu, hala nola aurrez ordua eskatzeko deiak hartzea, IVR telefono-sistema bidez operadore birtual gisa jardutea, zenbaki generikoetatik aurrez ordua eskatzeko iristen diren deiak hartzea, zerbitzuei buruzko informazio orokorra ematea, etab. Azkenik, Autonomia Erkidegoko zentro guztietako O-Sarean barruko zerbitzu eta aplikazioen funtzionamenduari lotutako barne-gorabehera teknikoak kudeatzen ditu. Sistemaren funtzionamendu teknikoaren berme hori dela eta —eta bereziki Osasun Aholkua zerbitzuak bultzatuta— jo du gobernu-agintaritzak honek zerbitzu hori bermatu beharreko ezinbesteko zerbitzutzat, bizitzeko eta osasunerako eskubideari lotuta dagoen heinean.

2014. urtean, Call Center Korporatibo zentralizatua bi sistemarekin ordeztu zen:

a) Osasun-erakunde batzuetan, telefono-jauziko dei-sistema bat ezarri da anbulatorioen artean, eta ez da beharrezkoa izango gutxieneko zerbitzu espezifikorik finkatzea sistema horretan.

b) Eta Araba ESlan, Donostialdea ESlan, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta ESlan, Bilbo-Basurtu ESlan, Uribe ESlan, Debabarrena ESlan, Bidasoa ESlan, eta, oraintsuago, Tolosaldea ESlan call center sistema bat ezarri da. Sistema horrek lehengo Call Center Korporatiboaren funtzio berak betetzen ditu, baina erakunde bakoitzera mugatuta dago.

Bigarren call center mota honetan gutxieneko zerbitzuak ezartzeko beharra honako hauek arrazoitzen dute: batetik, lehengo call center korporatiboaren funtzio berak betetzen ditu, erakunde sanitario bakoitzera mugatuta bada ere; eta, bestetik, telefono bidezko arreta oso garrantzitsua da; izan ere, arreta hori funtsezkoa da osasun-antolamenduan, herritarrek osasun-sistemearekin harremanetan jartzeko gehien erabiltzen dituzten bideetako bat baita. Sistema horren bidez, gainera, telefonoz ordua aurrez eskatzeko eskariaren banaketa orekatuagoa lortzen da eguneko orduetan. Horri esker, zerbitzuak ez dute gainezka egiten lehen orduetan, eta telefonoz bideratzen ez diren pertsonak ez dute nahitaez osasun-zentrora joan behar.

Ezarri beharreko gutxieneko zerbitzu zehatzei dagokienez, kontuan hartu behar da aurreko Call Center Korporatiboan urteko egun guztietan egiten zela lan, nahiz eta astelehenetik ostiralera bitarte jarduteko plantilla bat eta larunbaterako beste bat egon. Egungo Call Center zerbitzua antolatuta dagoen moduan, berriz, ez da zerbitzurik ematen larunbatetan. Beraz, gutxieneko zerbitzuak larunbatetako zerbitzuetara mugatzea zerbitzurik ez ezartzea izango litzateke, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak 2013ko maiatzaren 29ko Autoan erabaki eta 2013ko irailaren 25eko Epaiak berretsi zuenez. Hori guztia dela-eta, Osakidetzaren Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera, egungo plantillaren % 50 behar da zerbitzu hori betetzeko, eta, hortaz, lan horiek egin ohi dituzten langileen ehuneko hori ezartzen da gutxieneko zerbitzu gisa.

Inguruabar horietan guztietan oinarrituta, deialdi honen aurre-aurretik egindako greba-deialdietan, aipatutako zerbitzuari eragiten zioten heinean, agindu hauek eman ziren: 2014ko azaroaren 4ko Agindua, 2015eko apirilaren 21eko Agindua, 2016ko ekainaren 10eko Agindua, 2018ko otsailaren 27ko Agindua, 2019ko otsailaren 28ko Agindua eta 2020ko urtarrilaren 20ko Agindua eman ziren, eta, horietan guztietan, ehuneko hori ezarri zen gutxieneko zerbitzutzat.

SARS-Cov-2 koronabirusak eragindako pandemia-egoeraren ondorioz, oso garrantzitsua da berehalako arreta eta informazioa ematea bai herritarri, bai profesionali, zehatz betetzeko kutsatze posibleen aurrean hartu behar dituzten neurriak, kontaktuen aztarnei jarraitzeko egin beharreko lanak, eta kutsatutako pertsonak izandako harremanen gainean egin beharreko jarraipena, bai eta birusaren hedapena mugatu ahal izateko beharrezko neurriak hartzeko ere. Horretarako, kasuak eta kontaktuak zaintzeko programako sareko ekipoak eta infekzio aktiboa diagnostikatzeko test-laginak ateratzen dituzten zerbitzuak/unitateak sortu dira, eta Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua nahiz Prebentzio Medikuntzako Zerbitzua lan hori



betetzen ari dira. Horrenbestez, beharrezkoa da gutxieneko zerbitzuak ezartzea aipatutako zerbitzu guztietan. Horiek emateko, grebaren egunetako bakoitzean zerbitzu horietan lan egitea egokitzen zaien pertsonen % 100ek aritu beharko du.

Bestalde, **osasun-garraioaren eremuko OSAKIDETZAko enpresa azpi-kontratistetan**, zerbitzu horiek erabat gelditzen badira, osasun-arreta behar duten herritar asko ezin izango dira lekualdatu, eta horrek lehendik aipatu dugun osasunerako edo bizitzeko eskubideari erasotzen dio; izan ere, gaixorik dauden pertsonen lekualdaketa behar bezain azkar ez bada jarduten, pertsona horien heriotza ere gerta daiteke, beharrezko osasun-arreta ez jasotzeagatik. Arrazoi horiek guztiak kontuan hartuta, gizartearentzako ezinbestekotzat jo behar da sektore horrek ematen duen zerbitzua, eta, hortaz, baita behar-beharrezkotzat eta atzeratu ezintzat ere, argi eta garbi.

Eta, COVID-19aren pandemiak eragindako krisiarekin, infekzio aktiboa diagnostikatzeko test-laginak lekualdatzea premiazko eta lehentasunezko jarduera bat da, ezinbestekoa izan daitekeena bizitzak salbatzeko. Izan ere, beharrezko jarduera da infekzio aktiboa diagnostikatzeko test-laginak ateratzen dituzten zerbitzuei/unitatei estaldura emateko.

Bestalde, **garbiketaren eremuko OSAKIDETZAko enpresa azpi-kontratistetan**, kontuan hartu behar da garbiketa eta desinfekzioa direla, esterilizazioarekin batera, ospitale-ingurua deritzon horretan infekzioaren kate epidemiologikoa hausteko lehen mailako elementurik eraginkorrenak, lehen ere azaldu dugun bezala. Horrenbestez, ospitaleratuta dauden edo ospitaleetara tratamendu medikoa jasotzera jotzen duten pazienteei nahiz larrialdiko zerbitzuetako, zerbitzu kirurgikoetako, lehen mailako arretazentroetako eta etengabeko arreta-guneetako pazienteei arreta egokia emateko, laguntza-zentro horietan gutxieneko higiene-neurriak bete behar dira.

Lehen ere adierazi den bezala, ezin da ahaztu grebaren deialdia COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren barruan sartzen dela. Hori dela eta, garbiketa-zerbitzua, osasun-agintariek osasun-krisi horren ondorioz hartu dituzten neurriak eta gomendioak kontuan hartuta, osasun-agintaritzen neurrietan ezartzen diren intentsitate eta maiztasunaren arabera gauzatu behar da, eta, edonola ere, COVID-19aren aurrean ezarritako jarduera-protokoloak bete beharko dira. Garbiketa bereziki azpimarratu behar da. Horren barruan, zentro guztiak eta horien barruko gune guztiak desinfektatu beharko dira, garbiketa sakona eginez, ez soilik arrisku altuko gunetzat jotzen diren horietan (larrialdi-zerbitzuak, operazio-gelak, erditze-gelak, erredura handien unitatea, unitate koronarioa, dialisi-prozesuak eta tratamendu onkologiko atzera ezinak), baizik eta baita erabilera komuneko eta joan-etorri handiko guneetan eta kontaktu gehien dituzten gainazaletan ere (barandak eta eskubandak, botoiak, ateen heldulekuak, etengailuak, mahaia, eskailerak, igogailuak, iturriak, teklatuak, telefonoak...).





Sukaldaritzaren eremuko OSAKIDETZAKO enpresa azpi-kontralistek ematen dituzten zerbitzuei dagokienez, elikagaiak prestatzen jarraitu beharko da, baina elikagai horiek ahalik eta modurik erraz eta sinpleenean gertatu beharko dira. Horretarako, erabili eta botatzeko materiala baliatuko da, zeregin honetan ahalik eta denbora gutxien emateko moduko metodologiak edo protokoloak beteta. Era berean, bermatu beharko da janaria banatzen dela behar den zentroetara.

Aurreko guztia dela-eta, nabaria da beharrezkoa dela gutxieneko zerbitzu batzuk ezartzea; izan ere, funtsezkoak eta, beraz, babestu beharrekoak dira, bai OSAKIDETZAK bai OSAKIDETZAREN enpresa azpi-kontralistek ematen dituzten zerbitzuak, aurreko paragrafoetan adierazitako lehentasunezko arloetan zein osasun-garraio, garbiketa eta sukaldaritzaren eremuetan. Izan ere, zerbitzu horiek finkatuko ez balira, grebarekin lortu nahi den helburua baino askoz garrantzitsuagoak izan litezkeen kalteak eragin litezke, arriskuan jar bailitezke arlo horietan zaintzen diren pertsonen osasuna eta, zenbaitetan, baita bizia ere, pertsona horien kalteberatasuna dela-eta. Inguruabar horrek bultzatu du gobernu-agintaritzak agindu honetan zehaztuta dauden gutxieneko zerbitzuak ezartzera.

Martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-Dekretuak, Lan Harremani buruzkoak, honako hau xedatzen du 10.2. artikuluan: «greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta geroraezina den beharrezko edozein zerbitzu eskaintzeko enpresetan, eta larritasun bereziko egoerak daudenean, gobernu-agintaritzak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko» eta «Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak diren esku-hartzezko neurriak har ditzake».

Konstituzionaltasuna aitortuta duen arau horretan (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [KAB 1981\11]), Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2. artikuluekin bat etorritik (bertan honako hau ezartzen baita: «eskubide horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu gizartearentzako oinarrizko zerbitzuen mantentzea ziurtatzeko»), gobernuko agintaritzari aukera ematen zaio hainbat motatako berme-neurriak hartzeko, greba-kasuan funtsezko zerbitzuei euste aldera, eta hori egiteko neurrietako bat administrazio-ebazpenaren bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea da, eta lan-prestazioa eskaini behar duten langileei horiek bete ditzaten eskatzea.

Hori dela-eta, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-Dekretuaren 10.2. artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da, eta, horrenbestez, entzuteko izapidea idatziz egin zaie ukitutako alderdiei (hau da, grebarako deialdia egin duten sindikatuen, Osakidetzako zuzendaritzaren eta Osasun Sailaren ordezkariiei, eta ukitutako eremuetako enpresei nahiz enpresa-elkarteei), gobernu-erabakiaren eraginpean daudekeen zerbitzu eta langileen inguruko proposamenak azal ditzaten.



Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, 2. artikuluan, Lan eta Justizia Saila sortu du, eta, 6. artikuluan, lan-harremanen arloko lan-legeria betearazteko eskumena esleitu dio. Bestalde, Xedapen Iragankor Bakarraren arabera, Azken Xedapenetatik Lehenean aurreikusitakoa betetzen den heinean, indarrean jarraituko dute Gobernuko Lehendakariaren eta Gobernuko Sailen egitura eta eginkizunak zehazten dituzten arau organikoek. Ondorioz, indarrean jarraitzen du apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuak, Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak. Sail horrek bere eginkizunen artean dauka, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetutako eskumenaren bidez, behar diren neurriak zehaztea gizartearentzako funtsezko zerbitzuak mantentzen direla bermatzeko, zerbitzu publikoak emateaz edo beharrian atzera ezina edo aitortua asetzeaz arduratzen diren enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten grebetan.

Horregatik guztiagatik, bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak hartuta, honako hau:

EBAZTEN DU:

LEHENENGOA.- SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO, UGT, ESK, SAE eta UTESE sindikatuek OSAKIDETZAKO langileak grebara deitu dituzte 2020ko urriaren 28ko 22:00etatik 2020ko urriaren 29ko 22:00etara Arabako Lurralde Historikoko lantoki guztietan, 2020ko azaroaren 4ko 22:00etatik 2020ko azaroaren 5eko 22:00etara Gipuzkoako Lurralde Historikoko lantoki guztietan, eta 2020ko azaroaren 11ko 22:00etatik 2020ko azaroaren 12ko 22:00etara Bizkaiko Lurralde Historikoko lantoki guztietan, eta ELA, LAB, CCOO, UGT eta ESK sindikatuek osasun-garraioaren, garbiketaren eta sukaldaritzaren eremuetako OSAKIDETZAKO enpresa azpi-kontratatistetako langileak deitu dituzte grebara urriaren 29an Araban, azaroaren 5ean Gipuzkoan eta azaroaren 12an Bizkaian. Bada, greba egiteko eskubidea bermatuko da, betiere funtsezko prestazio eta gutxieneko zerbitzu hauek mantentzen badira:

- OSAKIDETZA-Euskal Osasun Zerbitzua

1.1.- Gutxieneko zerbitzuak:

- i. Ospitale-zentroetan, oro har, larunbatetako ohiko jarduneko langileek emango dituzte gutxieneko zerbitzuak —alta medikoak eman ahal izango dira— larrialdi-zerbitzuan, sukaldean, janariaren banaketan, eta arreta egokia emango zaie ospitaleratutako gaixoei.

Ospitale-zentro horietan, aurrez zehaztu diren eta geroraezinak diren tratamendu onkologikoak eta dialisi-prozesuak mantendu eta bermatuko dira. Halaber, koronabirusaren proba diagnostikoak egiteko ezarritako baliabideak mantenduko dira.

Ospitale-zentroetan zerbitzu horiek martxan egoteko garbiketa egingo da pertsonen segurtasunerako arrisku larri eta berehalakoa eragiten duten guneetan, Laneko edo/eta Osasuneko Arriskuen Prebentzioko xedapen eta protokoloak nahiz osasun-gomendioak betez. Halaber, zeregin horiek egiteaz arduratzen diren langileen % 100ek emango du zerbitzua, langileen eta pazienteen osasuna bermatze aldera.

- ii. Lehen mailako arretan, premiazko arreta bermatzeko eta COVID-19a duten pazienteei arreta eman eta hautemate-probak egiteko, deitutako grebaren egunean lan egin behar duten osasun-zentroetako langileek emango dute zerbitzua, larunbat baten pareko zerbitzu-modalitatean eta larunbat batean zerbitzu horiek ematen dituzten langileen kopurua bermatuta, salbu eta zerbitzu horien garbiketan. Azken eremu horretan, plantillaren % 100 izango da gutxieneko zerbitzuak mantentzeko beharrezkoa.
- iii. Larrialdi-zerbitzuen eta etengabeko arretako guneen % 100.
- iv. Arabako ESIko, Donostialdea ESIko, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta ESIko, Bilbo-Basurtu ESIko, Uribe ESIko, Tolosaldea ESIko, Debarrena ESIko eta Bidasoa ESIko Call Center zerbitzuetan, zerbitzu horiek eman ohi dituzten langileen % 50.
- v. Kasuak eta kontaktuak zaintzeko programaren sareko ekipoetan, eta infekzio aktiboa diagnostikatzeko test-laginak ateratzen dituzten zerbitzu edo unitateetan, herritarrei kutsatze posibleen aurrean hartu beharreko neurriei buruzko berehalako arreta eta informazioa emateko, aztarnei segitzeko eta kontaktuen jarraipena egiteko eta birusaren hedapena saihesteko neurriak hartzeko, langileen % 100.
- vi. Lan Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuan eta Prebentzio Medikuntzako Zerbitzuan, herritarrei kutsatze posibleen aurrean hartu beharreko neurriei buruzko berehalako arreta eta informazioa emateko, aztarnei segitzeko eta kontaktuen jarraipena egiteko, eta birusaren hedapena saihesteko neurriak hartzeko, grebaren egunetako bakoitzean lan egitea egokitzen zaien fakultatiboen % 100.

1.2.- Gutxieneko zerbitzu horiek nahitaez bete beharko dira, deialdiaren baldintzekin bat etorrita eta greba-aldia kontuan hartuta: urriaren 28ko 22:00etan hasiko da Araban, azaroaren 4an Gipuzkoan eta azaroaren 11n Bizkaian, eta urriaren 29ko 22:00etan amaituko da Araban, azaroaren 5ean Gipuzkoan eta azaroaren 12an Bizkaian.

2.- Osasun-garraioaren eremuko OSAKIDETZAKO enpresa azpi-kontratistek honako hauek beteko dituzte:

- i. Larrialdi-zerbitzuak, zehazki, zerbitzu hori emateko aurreikusitako langileen % 100ek emango ditu. Larrialdizat joko da Koordinazio Zentro batek eskatzen duen osasun-garraioa edo ziurtagiri mediko bidez hala egiaztatzen dena.
- ii. Hemodialisi- eta onkologia-tratamenduetarako eta eguneko ospitalerako programatutako garraioa, bai eta ospitale arteko larrialdiko garraioa eta Basurtuko ospitalean gertatzen diren larrialdi-garraioak ere, baldin eta: a) mediku-ziurtagiriaren bitartez egiaztatzen bada, b) ospitalean zerbitzu hori egiteko berezko langilerik ez badago, eta c) ohatila erabili behar bada. Era berean, ohatila erabiltzea eskatzen duten ospitaleko altek eragin duten eta mediku-ziurtagiriarekin egiaztatzen den garraioa. Zerbitzu hori emateko aurreikusitako langileen % 100 arduratuko da halakoak emateaz.
- iii. Odola eta hemoderibatuak lekualdatzeko zerbitzua emateaz zerbitzu hori emateko aurreikusitako langileen % 100 arduratuko da.
- iv. Infekzio aktiboa diagnostikatzeko test-laginak lekualdatzeko zerbitzuaz zerbitzu hori emateko aurreikusitako langileen % 100 arduratuko da.
- v. Telefonia-zerbitzua zerbitzu hori normalki egiten duten langileen % 25ek egin beharko du.

3.- Garbiketaren eremuko OSAKIDETZAKO enpresa azpi-kontratistek honako hauek beteko dituzte:

Pertsonen osasunerako edo segurtasunerako berehalako arrisku larria izan dezaketen arloen garbiketa. Horretarako, Laneko eta/edo Osasuneko Arriskuen Prebentzioan jasotako xedapenak eta protokoloak nahiz osasun-gomendioak izango dira erreferentziazko irizpide. Hala, zentro eta arlo guztiak sakon garbitzen direla bermatu beharko da, desinfekzio-lanak barne, eta, horretarako, erabilera komunekoak edo joan-etorri handikoak diren guneeetan garbiketa indartu egingo da, bai eta kontaktu handiko gainazalean ere, besteak beste barandetan, esku-bandetan, botoietan, ateen heldulekuetan, etengailuetan, mahaietan, eskaileretan, igogailuetan, iturrietan, teklatuetan, telefonoetan eta antzekoetan.

Eginkizun horiek ohiko langileen % 100ek egingo ditu.

4.- Sukaldaritzaren eremuko OSAKIDETZAKO enpresa azpi-kontratistek honako hauek beteko dituzte:

Enpresa horietan elikagaiak ahalik eta modu simple eta errazenean prestatuko dira, eta elikagaiok kasuan kasuko zentroetara banatzen direla bermatuko da, erabili eta botatzeko elementuak baliatuz eta lanak egiteko ahalik eta denbora gutxien eskatzen duten protokolo edo metodologiaren arabera, grebaren eragina suma dadin eta greba egin

nahi duten ahalik eta langile gehienek eskubide hori baliatu ahal izan dezaten. Ezin izango da, inola ere, pertsonen osasuna edo osotasuna arriskuan jarri.

Eginkizun horiek larunbat bateko ohiko langileek egingo dituzte.

BIGARRENA.- Greba-eskubidea erabiltzen ez duten pertsonak emango dituzte arestian aipatutako zerbitzuak, salbu eta langile horiekin ezarritako gutxieneko zerbitzuak bete ezin direnean.

Langileen ordezkariari entzun eta gero, OSAKIDETZako zuzendaritzak eta kasuan kasuko eremuetako OSAKIDETZako enpresa azpi-kontratistetakozuzendaritza-organoek izendatuko dituzte langileek bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, agindu honetan eta indarrean dauden legeetan ezarritako mugak errespetatu beharko dira.

HIRUGARRENA.- Agindu honen aurreko apartatueta bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktatzat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

LAUGARRENA.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

BOSGARRENA.- Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

SEIGARRENA.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitekeela lan-agintaritzan, agindua jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 26a.

Idoia Mendia Cueva


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Idoia Mendia Cueva

LAN ETA ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO
BIGARRÉN LEHENDAKARIORDEA ETA
LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA